



LOYOLA'tar A. INAZIO DEUNA  
 TA AUÑENENGO JESULAGUN  
 MIXIOLARI EUSKALDUNAK  
 EUSKALERIAN

«EUSKAL-ESNALEA»'K ERATU TA

DONOSTI'KO «NOVEDADES» ANTZOKIAN

A. AGIRE'TAR JORKE JESULAGUNAK

ESANDAKO ITZALDIA

(15 - XII - 1929)






M-8549 - R-36225

Lansinenea-tar Harro

ATV  
18313


LOYOLA'tar A. IÑAZIO DEUNA  
TA AUÑENENGO JESULAGUN  
MIXIOLARI EUSKALDUNAK  
EUSKALERIAN

AGIRE'TAR JORKE JESULAGUNAREN ITZALDIA



BAIMENAZ





## *Loyola'tar A. Iñazio Deuna*

*ta aurrenengo Jesulagun mixiolari euskaldunak*

*Euskalerian*

*Jaun Andreak:*

*Ez degu uste inñori gaizki irudituko zayonik itzaldi ontarako artu degun gaia artzea. Etxe etxeakoak dira zuentzat eta neretzat A. Iñazio Deuna ta euskaleriko mixiolari euskaldunak; eta etxe beñiak beti jakin nai izaten dira. Beñi oyek gañera jakingabekoak bada, eta guk asko maite degunen bat gutara ta gurea, guk uste baño gureagoa dala aditzera ematen badigute, atsegiñago izan oi dira. Onelakoak izango dirala uste degu gaur esango ditugunak. Ez genekigun, esango degu, noski, edeslariak gure Aita eta mixiolari aytzaz esango dizkigutenak jakindakoan, ez genekigun Aita Inñaki Deuna ain etxekoa ta ain etxekoa genuenik. Uste baño askoz etxeoago ta etxeoia degu Loyolako gure Aita.*

*Begira zertarako zuen aurrean itz egiten asi dan mintzatzan ari dana.*

*Ezer irabazi boño lenago zuen afera onak itz egiteko baimena eman dit eta, Jauna lagun degula, ekin dezayogun lanari.*



A. IÑAKI DEUNAREN ARPEGIA  
(Coello margolari ospatsuak egindako iruditik aterea)



## II

### GAIAK

Emen azalduko ditugun gertaketa, itz, egi ta beirik geyen geyenak: *MONUMENTA HISTORICA S. J.*, izena daramaten liburuetatik atera ditugu. *A. In. D.* eta aurrengo Jesulagunen eskutitzak eta beste idazki ta beiri asko bildurik daude orain arte atera diran 60 liburu oyetan.

Oezaz gañera asko erabili degu *LA COMPAÑÍA DE JESÚS POR LA INSTRUCCIÓN DEL PAÍS VASCO EN LOS SIGLOS XVII Y XVIII A.* Malaxetxebaia'k Leizaola jaunaren irarkolan ateratako liburu eder eta mamitsua. Oraindik oso gutxi ezagutu ta zabaldu da liburu bikain au.

Au baño lenagokoa ta txikiagoa, baña ederki egiña da: *SAN IGNACIO EN AZPEITIA, MONOGRAFÍA HISTÓRICA ESCRITA POR EL P. JUAN MARÍA PÉREZ ARREGUI, S. J.* Prólogo de don Carmelo Echegaray.

Orañ esango ditugun geyenak argitaraturik baña sakabanatuta daude Jesusen Lagundikoak orain 14 urte asi ta ilere ateratzen degun *JESUS'EN BIOTZAREN DEYA'N*. Oek izan ditugu esango ditugunetarako gai-tegi nagusiak; eta azaldu ditzagun oyetatik atera ditugunak.



ORAINCO LOYOLA



## *A. Iñazio Deuna*


1. Ez dago emen bizitza edestu beařík; baña gogoratuko ditugu guretzat egoki izango diranak. Jatoríz gure Aita Iñazio alde guzietatik euskalduna degu. Artzaiak okeñera dijoan ardiari aříkada bat emanaz zuzenera etořiazitzen dion bezela Jaungoikoak bide okeřetik biderik zuzenera ekaří nai izan zuanean, Iruñan zauritu zan lekutik Loyola'ko bere jayotetxera ekařiazí zuan. Emen beřiro jayo zan Jaungoikoaren aintzarik aundienerako. Gaxondoko egunak luze egi-ten zitzaizkiola ta txorakerizko liburu txarřak eskatu zitun, baña Gipuzkoa'ko Etxe nagusi artan etzan ořelako liburu txarřik arkitu. (1) Ez zan beraz, bere jayotetxean oituko liburu txar ayek irakurtzen. Jesus'en eta santuen bzitz liburuak eman zizkioten eta oek berotu zuten Loyola'ko Kapitana Jaungoikoaren gudarí izateko.

2. Bere jayotetxea ta eřia gero askotan gogoratuko dítu Azpeiti bere eřiari egin zion eskutitzean egi-ten duan bezela (2):

(1) Mon. Ign. - Series IV, t. I, 40.-

(2) Mon. Ign. - Series I, t. I, 161. Idazki au oso osorik dakuskezu geigařitzat itzaldi oni erantsirik.





LOYOLA ETXE NAGUSIA

Emen jayo zan lu'eraiko ta zerurako

A. IÑAZIO DEUNA

Eta emen jayo ta il zan bere iloba

*Jesulagun Loyola'tar Milian*



*Ez nuan nik inola ere irabazi dio, eta ezingo diot bear bezela ordaindu zuen artean nere jayotza izanaz agertu zidan onginaia.... Ta eskutitza bukatzean:*

*Nere otoitzak ezer gutxi dezateke, nereak diralako, baña guziak zuen alde izango dira. Begira bere eria ta eritaarak zenbait maite dituan.*

3. Gero ikusiko degu aitortzen eta esaten: euskaldunci beste edozeñei baño geyago laguntzera bearturik dagoala.

\* \* \*

4. *Ta bere lagunak A. Inazio euskaldun jatortzat al zeukaten?* Entzun dezayogun Simón Rodríguez portugaldarari. Ez zebilen, noski, A. au bear bezin zuzen, eta A. Inaziok zerbait agintzen ziolako edo, gogor xamar itz egiñaz onela dio:

*A. Inazio on ona da, baña bizkaitara da (bizkaitar (vizcaino) esaten zitzayon orduan edozein euskalduni), eta asmoren bat artzen badu bere arekin aterako da (1). Egi aundia A. onek diona: ez da bada, edesti ta edeslariak diotenez, Euskalerian A. Inazio jayo zanetik beste inor jayo (ezagutzen diranetan) Kristoren alde lan egin eta eragiteko asmoa arek baño auferago eraman duanik.*


\* \* \*

5. Beste portugaldar batek A. Inaki'ren itz oek artu ta idatzirik utzi dizkigu. Gure Aita, dio, bere az-

---

(1) Aicardo S. J. Comentario a las Constituciones de la Compañía de Jesús, t. 1, p. 968. Epist. mixtae, 3. 34.





EGIBAR ETXEA. Inaki Deunaren inudearena



keneko urteetan oso gaixo ibili zan. Bañenak ez zion ia janaririk artzen (1). *Noizik bein, dio Aita onek, iru lau bat gaztiña ematen genizkion.* Ez dakigu gaztiña ayek éreak ala egosiak izango ote ziran; baña edeslariak esaten digute: *igali au nere ériko igalia da ta, ni ere gaztiñak janaz mutil égiña naiz, esanaz, oso pozik artzen zituala.* Au da guk jakin nai genuena ta oso pozik jakin deguna.

\* \* \*

6. Bagenekigun euskaleñiko abesti ta dantzak bere bizikoak dirala gure jaialdiak alaitzeko; ez ori bakañik; entzun diogu gazte bati milaka lagunen aurrean gure Gotzai jaunari euskeraz esaten: *Jauna, ni Obispo banintz... auresku bakoitzerako induljentziak emango nituzke;* baña dantza oek gaixo daudenak sendatzeko indaía zeukatenik ez genekigun orain esango deguna irakuñi arte. (2) Paris'en bizi zan lagun batzuekin gure Aita; oetako bat gaixo zegoen; baña bere gaitza oso sendagaitza zan nunbait (neurastenia edo onelakoren bat izango zan) eta ezin zuten gaixoa inñola alaitu ta sendatu. Alako baten esaten dio A. Inñaziok: obeto zaude ta poztu zaite: ain ilun eta goibel bazaude, ezin ziñezke sendatu. Zerbait nai al dezu? Eskatu, alaitzeko nai dezun guzia, eta emango zaizu. Gaixoak orduan, dio edeslariak, burutik gaixo dagon batek


---

(1) *Jesusen Biotzaren Deya*, 1921'garen urtea; 158'garen orialdea.....

(2) *Razón y Fe*: tomo 42, pág. 296.



Bean :  
ELOSIAGA-  
ko ELEIZA



Goien :  
MADALENA'KO  
GAXOETXEA  
AZPEITIN



bakarik eskatu zezakena eskatuaz esaten dio: *Aita, ni alaitu nai banau, abestu ta dantza egin beza emen, beroñen erian, euskalerian egin oi dan bezela*. Eta A. Inazio Deunak gaixo dagonari pozaldi bat emateko, abestu ta dantza egin zuan euskalerian egin oi dan bezela. Ta gaixoa pozaren pozez sendatu egin zan.

\* \* \*

7. Gertaketa oek entzutean bururatuko zitzayon norbaiti galdetzea. Eta gure Aitak euskeraz nola egi-ten ote zuan? Erez da galdeera oni erantzutea — Loyola'n eta Egibar baseñian (1) eta auzo ta inguruetan egin oi dan bezela egingo zuan. Paris'tik Azpeitira etoñi zanean Ayako Iturñiotz'en gaua igaro zuan. Gau artan bertan eldu zan Iturñiotza Azpeitiko gizaseme bat, len aitatu degun Loyola ondoko Egibar etxean, A. Inaki D. ren inudearenean jayoa. Arakiña zan eta Behobira zijoan arategirako abere bila. Iturñiotz'era eldu zanean esan zioten: Emen daukagu Pranzi alde-tik datoñen euskaldun bat; izkeran alde auetakoa dirudi. (2) Ate zuloatik begiratzen du Egibañek'eta eza-gutu du Loyolako seme gazteena, umetan bere lagun izana dala. Eraman du beñia Azpeitira eta Inigo dato-


---

(1) Egibar baseñian azia bai zan.

(2) «Y como oyese decir a la ventera (de Iturñiotz) que acababa de llegar un desconocido que hablaba bascuence, se puso a mirar...

«Compendio de la Vida de S. Ignacio de Loyola en bascuence y castellano». 1872. Pág. 77.





Azpeitin, Madalena Elizatxoa beñituta,



felako beña zabaldu orduko sartu da au bere jayote-  
rian. Gogoragañiak dira bere erian gure Aitak egiñak,  
baña ezin ditezke guziak onera ekañi. Madalenako  
gaxoetxe atarian eta Eliz nagusian erakusaldi asko  
egin zituan. Elosiagako tontoñera ere igo zan, an egin  
oi ziran Erogatibaetan itzaldia egitera. Bertakoez ga-  
ñera Zestua, Erezil, Bidani, Goyatz, Albiztur eta To-  
losatik milaka entzule etoñi omen ziran. Itzaldi ayeta-  
tik eñi ta baseñi ayetakoak asko ikasi ta on andia ate-  
ra zutela diote garai ayetako idazkiak eta ez dago  
beste ezer esan beañik, alegia: itzaldi ayetan euskal-  
dun uts ayek asko ikasi zutela esatez gañera, ez dago  
beste ezer esan beañik erakusaldiak euskeraz egiñak  
izan zirala esateko.

\* \* \*

8. Euskeraz idazteko oiturarik etzan garai ayetan,  
baña Araotz Aita Bergarañak bere erkide Inaki Aitari  
egindako idazkietan euskerazko itz eta esaera bat  
agiri dira. Bazekien, noski, Araotz Aitak bere eskuti-  
tzak askoen eskuetara elduko zirala; ta oregatik eus-  
kerazko itzak sartuaz, euskeraz zekienak bakañik,  
alegia Inaki Aitak bakañik aditu edo ulertzeko eran  
esaten ditu oni babañik esan nai dizkionak. (1)

---

(1) A. Inaziok bakañik ulertzeko A. Araotz'ek bidaltzen dituan  
itz eta esakuntzak oek dira: «jente verriak»... «digo en lo de ve-  
rriac». Tratando de los «cristianos nuevos», i. e. oriundos de ju-  
díos o moros. Eta «eztitut scribizen» las causas principales». Ep. mixt. I, 197, 241.





ARANTZAZU'ko  
AMA

*Cure  
Aita Inaki  
Deunaren Ama  
kutuna.*



ARANTZAZU



9. Orain arte ikusi ditugunetan benetan euskaldun eta euskaldunen maitale agertzen zaigu gure Aita. Baña maitasunik gartsuena Eřomatik agerten digu. Euskalerian berak bakařik lan egin zezaken euskaldunen onerako. Baña Eřomatik langile bizkor eta askoen bitartez lan egin dezake ta ala egiten du. Bazekiten bai orduko euskaldunek A. Inãziok asko nai ziela ta beren estutasunetan arengana jotzen zuten.

1553'gařen urtean Arantzazu eře zan. (1) Gipuzko guzia naigabetu zuan gertari negargaři onek; eta nor egin dezake zerbait, oker aundi onen kalteak zuzentzeko? esaten asi ziran. Zerbait dezateken oyetan nor da Arantzazuko Ama beste inork ez bezela maite duana? – Jesus'en Lagundiko Buru nagusiena: Loyolako A. Inãzio. Onek lagunduko digu Eřomatik beste inork baño obeto; esan zuten Gipuzkoařak. Eta Araotz eta Borjak beren aldetik, Frantziskotařen nagusi Provincial A. Kastilok Arantzazukoen izenez, Oñati ta Azpeitiko eřiak eta Loyolako Jaunak, guzi oek idatzi zioten gure Aitari; eta erantzun zuan onek esanaz: *Arantzazuko Ama maiteari agertu izan zayon leya ta maitasun aundia ezagutzen ditugunok egoki da suak egindako oker oyek zuzentzeko egiñalak egitea. Nik lan ori biotz biotzez ekin nai diot Arantzazuko nere Amari zer diodana nolabait ordaintzeko. Gogoratzen*

---

(1) Mon. Ign. VII, 425.



*naiz, bada, Jaunak beregana biurtuazi nindunean Arantzazura joan nintzala, ta gau osoa Eliz artan otoitz egiten igaro nuanean nere gogoak bero ta irabazi aundiak atera zituala. Onaraño gure Aitaren itzak. Eta dirudienez gau artan Arantzazuko gure Ama txit garbiaren elizan egin zuan garbitasun eskeintza. (Kastidateko votua). Iritzi ontakoa da Arantzazuko arazoetan ain jakintsu dan A. Lizaálde, Franziskotaía.*

\* \* \*

10. Atsekabe ontan bakañik ez; beste askotan ere euskaldunak laguntza eske A. Inãziorengana eldu izan ziran. Begira noiz eta nola.

Inñori ezer kendu gabe, (ez dauka, bada, Euskaleñiak aundi izateko inñori ezer kendu beañik), esan dezakegu gure eñia benetan aundia izan dala, Jaungoikoaren eñi kutuna izan dalako. Baña askotan aundia, ta, Jaunari eskeñak, ona izan añen eñukañia ere izan da. Beste eñietatik onara etoñi ziran A. Jesulagunak diotenez, garai ayetako euskaldunak oso onak ziran; baña nork erakutsirik ez zeukaten. Eta mendietako gizona, ondo erakutsiko dionik ez badauka, basa pizti biurtuko da. Gaitzbide ontara zijoazen orduko euskaldunak Artzai on bat emen, eta Aita on on bat Eñoman arkitu izan ez bazituzten.

Aitaren izena badakizute. Ezagutzen genuen baño obeto ezagutzen ari geran Aita da. Artzai ona Kalaoñako Gotzai Bernal Diaz de Luko ta Ilañatza. Euskaleñi erdia bere Eliz bañutian zeukan jaun onek, Bala-



dolid'tik lenbizi ta Trentotik gero eskutitzak A. Inazio'ri biali zizkion esanaz:


*Badakit zure semeen bitartez alde guzietakoei on egiten ari zerala; baña beste guziei baño geyago begiratu bear diezu zure eritafei, euskaldunei; emen jayo ziñan eta emengoei on egitera beartuago zaude. Biali, bada, Euskaleñira semeren batzu; baña EUSKERAZ ITZ EGITEN DAKITENAK biali bear ditu, ez dago bada bestela, emengoen biotzetan erakutsi onaren azia ereiterik. Batez ere, erakusle euskaldunen bear aundia dago; oso gutxi dira, bada, elizgizonen artean euskeraz erakusten dakitenak eta erakutsi nai dutenak (1).*

Zergatik ain gutxik euskera ikasi ta euskeraz erakutsi naia? Ikasteak ez ikasteak baño neke geyago daukalako ote zan? Euskeraz ez egin naia, euskera izkera basatitzat zeukatelako ote zan? Orain ere badira gure izkera eder eztitsu au basatitzak daukatenak, eta A. Inaki Deunaren seme A. Lañamendi batek *Eziñña egiña* atera baño ia beñeun urtez lenago alakoak izango zirala sinistu liteke. Oregatik dala, aregatik dala euskaldun gaixoak zerubidea nork erakutsirik ez zeukatela zeuden. Baña eldu da euskaldunen Artzai onaren oyua Eñomaraño. Entzun du oyu negargañi ori Jesus'en Lagundiko Buru nagusi euskaldunak. Italin dabil añigañizko lanak eta mirariak egiñaz italiañak zerubideratzen euskaldun argi, santu eta jator bat A. Otxoa, napaña. Ateratzen du au A. Inazio'k Itali'tik eta Euskaleñira bialtzen du. A. Otxoa nor

---

(1) Ep. mixt. I, 210; V, 720.





Oñatin.—Bean: Madalena Elizatxoá. Goien: Borja Deunaren  
gela Elizatxo biurtuta.



zan eta zenbait eta ze lan gure artean egin zituan esateko astirik bagenuke ikusiko zenuteke zenbait zordion Euskaleñiak A. Inñaki Deunari Aita Otxoa gure artean lan egitera biali zualako. Baña ez zuan au bakañik biali. Kalaoña'ko Gotzai Jaunari erantzunaz onela dio gure Aitak. *Txit egoki ari da berori euskaldunen aingerutza egiten eta egia da gu ere (ni ere) euskaldunai besteai baño geyago laguntzera ta ayek eñuki izatera bearturik gaudela.* Eta bialtzen ditut alde ayetara euskeraz lan egingo dutenak. Oezaz gañera bialtzen det euskeraz ez jakin añen, euskaleñian on aundia egingo duana.

Nor da au? – Orduan A. Inñazio Deunak inñora biali zezaken semerik argiena, onena ta izenik aundikoena. Gandia'ko Duke, Lonbai'ko Markes, Katalauniko Eñege-ordezko aundiki bat: V'en Karlos emperadorearen adiskiderik aundienetakoa: Borja'tar Franzisko. Eñomara eldu beñia zan Duke Santua. Añiturik zeuden Europako jaunak onek egin zuana jakin zutenean, Jesus'en Lagundi sortu beñian sartu zala, alegia, jakin zutenean. Asi ziran Aita Santua ta Kardenalak A. Borja Kardenal egin bear zala esaten. Oek oetan zeudela eldu zitzayon A. Inñaki'ri Kalaoña'ko Gotzaiak Trento'tik bialitako eskutitza. Biotzak esaten dio euskaldunentzat ikasbide zoragañia izango litzakela Gandia'ko Duke Santua, ta A. Otxoarekin eta beste lagun batzuekin Euskaleñira bialtzen du. Ez Euskaleñiko mendi tarteetan izkutatzera, norbaitzuk esan izan duten bezela, ez: bialtzen du Euskaleñiko Jaunak eta Jauntxoak Jaun aundi bat aunditasuna ta aberastasu-



nak oñazpiratuta zerura igotzen ikusi dezaten; emengo langile beartsu ta baseñitarak eskean atez ate santu bat ikusi ta benetako aunditasuna maite izan dezaten. Jaun aundi au Jesus'en Lagundian sartzeko asmotan zebilelako beñia zabaltzen asi baño len galdetu zioten A. Iñaziori: Esango al degu Gandiako Duke Jauna Jesus'en Lagundi ontan sartzeko dabilela?

— Ez, erantzun zuan gure Aitak: *ez da etoñi ori esateko garaia; mundutañen belañiak oraindik ez dira gauza turmoiots ori entzuteko.* Turmoiotsa egitera Oñatira bialia zuan; Oñatin utzi zizkion bada, Franziskok bere semeari Gandia'ko Duke'tza ta beste gañerako ondasunak; Oñatira etoñi zan Kalaofatik Obispo Jaun bat Gandia'ko Duke izana Apaiz egitera. Loyola'n eman zuan apaiz egin beñiak lenbiziko meza ixilik eta izkutuan. Zergatik ixilik eta izkutuan? Eñomatik A. Iñaziok esaten bai zion itxoiteko, ta agirian auñenengo meza ez emateko berak esan arte. Jubileo edo barkamen berezi berezi bat iritxi nai zuan Aita onek Borja'ren lenengo meza entzuten zutenentzat. Iritxi zuan; zabaldu zan beñi au euskaleñi guzian: Aita Borja'k Bergara'n emango zuala lenengo meza; santu baten meza entzun eta gañera, Aita Iñakik Eñoman iritxita, barkamen aundiak irabaziko zituztela. Bergarako San Pedro Eliza oso aundia zala ta meza beñia an emateko asmoa artu zuten; baña Eliza aundia txikiegi zan ainbeste lagun artzeko; ta aldarea atari batera atera zuten ta zerua estalgañitzat eta mendiak ormatzat zirala agiri zabalean meza beñia eman zuan. Amalau orduko bidea egindakoak baziran meza ura entzun zuten ama-



bi mila euskaldunen artean. Meza ematen bederatzitan asi ta aratsaldeko ordu biak arte aldarean egon bear izan zuan Borja Santuak. Mila ta beŕeun ta befogei ta geyago lagunei bere eskuz Jauna eman zien. Meza laguntzaleak Bergara ta Zarautzko bi apaiz izan ziran.

Begira zeñen ederki antolatzen dituan gure Aitak Erromatik Euskaleriko eliz-jaiak.

Baña ezin ziteken Duke Santua Oñatin eta Bergaran izkutaturik gelditu. Oñatiko Jesulagunen etxetik eta Madalenako Elizatxo ondotik Iruña, Gazteiz, Bilbo ta Donostira juan zan, bideko erietan geldialdiak egiñaz. Gipuzkoako eririk geyenetan (izenak ere eskutizetan agiri dira), ibili zan itzaldia egiñaz. Beti berekin erabiltzen zuan A. euskaldunen bat, geyenetan A. Ernani, Zumaya'ko Bikario izana; Borja'tar A.'k erderaz esaten zituanak Ernani'k euskerara biurtu zitzan. (1) Eta ¡gauz arigañia ta oso gutxitan ikusten dana! Urte bete ta ilabete bat edo beste bakañik egin zituan emen Gandia'ko Duke Santuak, eta al zuan bezela euskeraz egiten ikasi zuan emengoei euskeraz Kristau-Ikasbidea erakusteko, ¡Santua baizan, eta santuak badakite Kristau-Ikasbidea nola erakutsi bear dan! (2)

---

(1) — «Ernani, Vicarius Zumaya Mon. Borg. 3, 111, virvalde pius et eruditus *Borgiae interpretis apud cantabros erat*».

(2) «Salía a tiempos por los pueblos comarcanos a pedir limosna, enseñar la doctrina y predicar en vascuence, de cuya lengua difícilísima aprendió lo bastante para hacerse entender de aquella gente sencilla y también en castellano».

Cartas de S. Ignacio. T. 3, p. 49, 51 (nota).



Esan bea'rik ere ez dago euskaldunak biotz biotzez maite izan zutela Aita In'aziok beren gogoak zeruratzeko bializien Duke Santua. Atez ate eskean zebile-nean base'rietako etxeakoandreak belauniko itxoiten zioten eman bear zioten limosna eskuan zutela.

Azkoitin, dio bere lagun batek, bazkalondoan atera giñan A. Borja ta ni eskera. Kale batean baka'rik ibili giñan eskean; baña iru asto indartsuen bea'ra izan genuen eman zizkiguten ogi, olo, kapoi, urdai, urdai azpiko, saieski ta gañerakoak etxera, alegia, gaxotegi edo ospitalera (e'rietako gaxoetxeak izan oi ziran, bada, Gandia'ko Dukearen etxeak) eramateko! Borjak berak ere idazten dio A. In'aziori euskaldunak zeruraño goratuaz, eta... eskutiz bat amaitutakoan, zerbait aztu balitzaio bezela, begira zer esaten dion: *Aita, Azpeiti'n ikusi det berori Paris aldetik eka'rizuan moxala (zaldi txikia); oso gizena dago; beori eka'ri zualako edozein sorotan nai duan guzia jaten uzten bai diote.* (1)

---

(1) Mon. Hist. S. J. — Litt. Quadrim. I, 494.



# *Euskaldunak A. Iñazio'ri Jesuitetxeak eskatzen*

## *Euskalerían etxeak eragin naia.*

Lanik iraunkoárenak egiteko biderik egokiena zan efi batzuetan Jesulagunen etxeak eragitea; ta ardura aundiz artu zuten bai efiak, bai ta gure Aitak ere egiteko au.

*Azpeiti n.* – 1540' gaíenean eskatu zuten A. Araotzen bitartez, Jesuitetxe bat; baña orduantxe sortua zan Jesus'en Lagundia eta ezin ziteken eman Azpeitiaák nai zutena.

*Oñatira.* – 1551' Joáilaren auíenengo egunetan eldu ziran A. Borja'rekin batera zazpi lagun, A. Otxoa buru zutela, Euskalerían J. Lagundiak izan zuan lenengo etxea egitera. A. Iñazio'k oso maite izan zuan etxe au. Etxea askotan ia bakaík egoten zan A. euskaldunak inguru efietan lan asko zeukatelako.

*Bermeo.* – Bermeotaák bertako seme Anai Zornotzaren bitartez Ikastetxe bat eskatu zuten. A. Iñazio'ri oso ondo iruditu zitzayon an Ikastetxea egitea, ta Kardenal eta aundizki, Printzipe ta oíelako batzuei ukatu ziena ez zion ukatu nai izan Bermeoko efiari. Loy-



lan dago Ikastetxe ura eragiteko E'romatik bere eskuz izenpetuta bializuan agiria. Gero eragozpenak sortu eta etzan egin Ikastetxea.

*Bilborako.* — Kalao'ako Gotzai Jaunak Begoña eskeñi zion A. In'aziori. Oso pozik artuko zukela Eliz ura bere Semeen Eliz izateko; baña auzitan zebiltzan Elizaren jabe ziralaz uste zutenak eta, ez zuan artu.

A. Borja'ri eskeñi zizkioten Bilbota'ak San Nikolas eta San Joango elizak; baña askoz gerogo arte ez zan Ikastetxerik egiterik izan.

*E'renteriñ.* — E'renteriko E'retore Jaun batek bere e'riko ta inguruetako euskaldunei laguntzearen eskeñi zion A. In'aki'ri etxe ta elizatxo bat; E'renteriko mugapean, tontor batean eta Donosti ta Ernani'ko mugetatik gertu. Nai ziran lanetarako egokitasunik ez zeukan lekaro (desierto) baten bezela arkitzen zan etxeak eta eziñ artu izan zan.


*Iruña'n.* — Bitan (1546, 1551) nai izan zuten Ikastetxea; A. Araotz an ibili zanean lenbizi, ta gero Borja Santua jun zitzayenean. Orduan lanetan asi ta gerogo egin zan.

*Bergara'rak* ere (1546, 1551) Araotz eta Borjaren bitartez egiñalak egin zituzten eta azkenean urteak igarota oso izen aundikoa izatera eldu zan Ikastetxea iritxi zuten.



*Olite'n.*—A. Otxoa juan zan, Oliten, nai zuten bezela, etxerik artu ote ziteken ikustera; baña ez ziran lanak oretarako bear bezela eratu.

*Gazteiz, Arasaten...* eta beste efi askotan, A. Borja ayetan izan zanean, Jesulagunak efi ratzeko berotasun aundia sortu zan; baña A. Inazio'k nai izan aeren, ezin zitezken ainbeste aldeetara bialdu; gutxi bai ziran bere semeak, mundua beñiz oso zabala.







## *Mixiolari euskaldunak*

### *Euskalerian*

*A. Otxoa.* — Oñatin, Jesus'en Lagundiak Euskalerian izan zuan lenengo etxean Aita Borja ta onekin etoñi ziranen Buru izatera etoñi zan len aitatu degun Aita Otxoa. Eronkal'eko Uztañoz'en jayoa zan eta Italin zebilen, mirariak Apostoluak bezela egiñaz, italitaarak zeruratzen. Bendizioa eman eta eskuz ikutu beste gabe gaixoak sendatzeko goi-indaña (teologoak esaten dutena *gratia gratis data*) Jaunak eman zion, eta euskal-erri guzian arigariako lanak egin zituan. Onela: Lekeitio, Markina, Ermua, Eibar, Añasate (Mondragoe), Eronkal'eko erietan, Iruñan eta batez ere Oñatin egin zituan lanik eta miraririk geyenak.

Onen bizitza arigariak gaurko itzaldia bezelako bat berak bakañik eskatuko luke. Norbaitek egingo al du!

Euskaldunak zenbait maite zuten ikusteko, begira, adibidez, Iruñan zer egin zioten: Umeai Kristau-lkas-bidea erakusten, mixioetan ibili oi geran bezela ibili ondoren, txiki ta aundiak negañez: gelditu zedila Iruñan edo biali zitzala Jesulagunen batzu eskatzen



zioten; eta umeak, Iruñan gelditu zedin, mezak ateratzeko dirua biltzen etxez etxe ikili ziran.

A. Polankok Otxoa Aitaren lanak Euskalerían edes-  
tutakoan dio: *Mendi ayetan (euskaleríkoetan noski)*  
*Aita gurea ta Otoitzak beste abestirik ez zan entzuten.*  
Ala diote Euskalerítik datozen idazkiak. (1)

*Loyola'tar Emilian.*—Mixiolarien artean toki eman  
beárekoa da.

A. Inazio'ren iloba bat, bere anai Loyola'ko Jauna-  
ren semea ta A. Inazio Deunaren jayotetxean jayoa,  
aingeru zirudien eta gazterik aingeru bezela il zan.

Apaiz egin da bereala biriketako gaitzak Eroman  
jo zuan, ta bere osabak Azpeitira bere jayoteñira aita-  
rengana ta amarengana biali zuan, euskaleríko aizeak  
sendatuko zutelakoan. Asi zan sendatzen; baña etoñi  
aundiko iztuna zan; Azpeitin batez ere itzaldiak bero  
ta gartsu egiten zitun; baten Elgaro edo Abenduko  
erakusaldiak zirala, gero Garizumakoak. Biotzeko ga-  
ñari ta euskaldun ayen alde lan egiteari etzion neñi-  
rik artu; erori zan beñiro, gaizkiagotu zan eta aingeru  
bat bezela bere eta bere osaba ta Aita maite Inaki'ren  
jayotetxean il zan Eromatik etoñi ta amalau ilabetera.  
¡Auxe izan zan alde oetan il zan lenbiziko Jesulaguna;  
Loyolan jayoa, Loyolan ila, A. Inazioren iloba kutu-  
na! Eta gañera ¡euskaldunei zerubidea erakusteko gor-  
putzaren indańak zezateken baño lan geyago egin da,  
Loyalako etxe nagusian ilik eroria!

---

(1) Polanco-Chr. 4, 433.



*Araotz.* – Bergara'ra. Len aitatu degun A. Loyola-ren lengusua, Araotz bai zan aren ama, Loyola'ko Etxekoandrea, A. Inazio'ren ezkon aréba edo koñata.

Españi'n sartu zan lenbiziko Jesulaguna eta – Provincia de España – au da Españi guziko Jesulagunen Burua.

Oso mintzolari bikaña zan, eta Jesus'en Lagundi sortu beñiari Bartzelona, Balentzi ta beste uri askotan izen aundia eman zioten Araotz'en itzaldi jakintsu ta gartsuak.

Euskaleñian askotan ibili zan euskeraz itzaldiak maiz egiñaz. Lenbizi etoñi zanean Apaiz egin gabekoa zan, 23 urteko gaztea. Ala ta guztiz ere (bazeukan ofetarako baimena ta) *gelditu gabe nabil mixiolari-tzan* esaten dio A. Añazio'ri Bergara'tik. Jaunaren itzaren egañi aundia bai zeukaten euskaldun ayek!

Zenbait entzule izan oi zituan aldi batzuetan ikus-teko aski da jakitea Elosiaga'n (Azpeiti'ko auzo bat da) egin zuan itzaldi batera *lau mila* euskaldun batu zirala.

*A. Ernani.* – Zumaya'ko Bikario izana. Borja'tar Aita onara etoñi zanean Jerusalemene izan beñia zan Apaiz Jaun au. Bizibide beñia artzeko asmotan zebilen; itz egin zuan Duke Santuarekin Jesus'en Lagundian sartzeko asmoa azalduaz. Ondo zeritzaiola erantzun zion A. Borja'k; baña erabaki ori artu baño len itz egin zezala Gazteiz'en Prantzisko'tar jakintsu ta santu batekin, esan zion. Itz egin zuan ta A. Fran-ziskota'rak Borja sartu zan Jesus'en Lagundira Jaun-



goikoak deitzen zuala esan da, A. Otxoa'ren mendera Jesulagun izatera etoñi zan. Borja'tar Aitari euskaleñiko ibilaldietan laguntzen ibili zan: «Borgiae apud cantabros interpres» – Borja'ren erderazko erakusaldien euskeratzale izanaz.

Mixio lanetan Lekeitio'n ari zala il zan, A. Otxoa eriotz orduan laguntzale zuala. A. onen gorputza Zumayañak ain maite duten Añitokieta'ko Ama sortzez garbiaren Elizatxora ekañi ta an obiratu zuten.

*A. Ubila.* – Mutrikoaña, apaiz izan baño len askotan ibili zan mixio lanetan A. Otxoa'ren lagun. Santutzat zeukatelako S. Juan de Ubila esaten zioten. Jesus'en Lagundian izan dan jakintsurik aundienetako Suarez Aitaren Nobizio-Irakasle izan zan. Eta Durango'n mixioa ematen ari zala il zan (1570).

*A. Solis.* – Jesulagun bezela agertzen zaigu eskutitz askoetan; baña ez dirudi Bergara'ko Bikario Jaun au Jesus'en Lagundian sartu zanik.

*A. Zarautz.* – Lengoarekin A. Borjaren lagun mixio batzuetan.

*A. Berastegi* (Eguskitzea). Au ere A. Otxoaren mixio lagunetakoa. Eñomatik 18 urtekoa zala Loyola'tar Emilian gaixo zetoñenari lagun egiñaz Loyolara etoñi zan.

\* \* \*





XABIER DEUNA MIXIOLARI EUSKALDUNA  
MIXIOLARIEN ZAINDARIA



Itzaldia geyegi ez luzatzeaŕen Euskaleŕian ibilitako mixiolariak bakaŕik aitatu ditugu; baŕna mixiolari euskaldunak aitatu ta ezin genezake ixilik iduki lurbira guzian zabalduŕik eta aintzaz goraturik dagon mixiolari euskaldun baten izena.

*A. Xabier Deunaren izena.* — *Nere izkera euskera da, bizkai izkera* (orduan esan oi zan bezela) dio Indiatik biali zuan idazki oroigaŕi baten; eta gure izkera maite ta gozoa biotzetik ezpaŕnetara eta ezpaŕnetatik gure Jaunagana zijoakiola, Jaungoikoarekin euskeraz itz egiŕnaz il zan juan diraneko gizaldietan izan dan mixiolaririk aundiena.

Onen lengusua zan

*A. Azpilkueta.* — Xabier ere deitzen zutena. Brasil'a biali zuten angoak zeruratzera, eta beste bere lagunak ango izkeran ezin ezer egiŕnik zebiltzala Xabier'en lengusuak mara mara angoekin itz egiten zuan. Euskeraŕen antz aundia arkitu omen zion ango izkerari, eta oŕegatik berealaxe ikasi zuan.

### *Geroko goraberak*

Gure A. Iŕnazio Deuna il zaneraŕno Euskaleŕian ibili ziran mixiolari euskaldun Jesulagunen beŕi eman nai izan degu eta txit laburki izan bada ere eman degu;



baña ikusten det entzuleen biotzetan jakin nai bat: geroko Jesulagunak beren Aitagandik artutako bide oyetan jaraitu ote zuten? Maite izan ote zuten alegia Aitaren Eñia Aitak (ikusi degunez) maite izan zuan bezin maiteki? Lan egin ote zuten euskaleñian Aitak erakutsi bezela?

Beste aldeetan bezela gorabera aundiak izan ziran Euskaleñian A. Inaki Deunaren eriotz ondorengo urteetan; baña beti izan dira emen euskaldunentzat mixiolari Jesulagun euskaldunak (1). Baita A. Borja Santuak bezela euskaldunai euskeraz erakusteko euskera ikasi zutenak ere. Oroigañia da gai ontan Baladolid'ko Alaejos eñian jayo zan *A. Bernardo Recio*'k egiña. Aita au Aita Nagusiak Oñatira bializuan; baña onara orduko ikusi zuan emen euskera gabe ezin zezakela ezer egin, eta asi zan euskeraz ikasten. Ekin da jarai *Oñatira etoñi zanetik bi ilabetera aitortzak euskeraz entzuten asi zan, eta iru ilabetera itzaldiak egiten*. Onela Baladolid'ko seme au aitamen aundiko mixiolari izan genun euskaleñian; eta emengoak *San Bernardo* deitzen zuten, Bernardo bai zuan izena.


### *Aita Kardaberaz*

Beste mixiolarien izenik aitatuko ez badegu ere eziñ aitatu gabe utzi *A. Kardaberaz*, euskaleñiko mixiola-

---

(1) Irakurri len aitatu degun liburua: La Compañía de Jesús por la Instrucción del País vasco en los siglos XVII y XVIII.—Librería Leizaola, Caribay, 28. San Sebastián.





A. KARDABERAZ'TAR AGUSTIN  
Euskalefiko mixiolari Jesus'en Biotzaren kutuna



rien artean goyen goyenko malan dakusgun A. Kardaberaz, Ernaniaña. Azkoiti'ko Jesuitetxetik lenbizi ta gero Loyola'tik irten da egindako ibilaldietan bira biratu zituan euskaleñi guziko baztañak. Nunnai ikus-ten dira euskal elizetan A. Kardaberaz'en oroigariak. Ez elizetan bakañik, baita Apaiz etxeetan ere; eta guk jakin gabe beste etxe askotan ere arkituko dira noski. Oroigari oek Jesus'en Biotzaren irudiak dira ta geyetan Jesus gazterik agiri oi da.

Añigariak ziran arek emandako mixioak. Mungia'n eman zuanera amazapi eñietatik bildu oi ziran entzuleak; eta oetako batzuek A. Kardaberaz'i entzuteařen gaueko bederatziak arte baraurik egon izan ziran.

Aita au baño euskaltzale gartsuagorik izan ote degu? Euskaleña txit ederki ezagutzen zuan; Jaungoikoaren gogoaren beñi guziz garbi zekien, Jesus'ek bere biotza erakutsiaz askotan itz egin bai zion; eta begira gure euskeratzaz zer dion: **EUSKERAK BURUA JASOTZEA, JAINKOAK NAI DU.** alegia, euskaldun gaxo askoen zorionerako Jaungoikoak nai duala euskerak burua jasotzea. Jesus'en Biotzaren gogo gogokoak zirala itz oek jakin ez bazuan ez zituan A. Kardaberaz'ek idatzirik utziko.

\* \* \*

Eta jaso ote zuten euskera A. Inazio'ren semeak? Galdetu A. Kardaberaz'en anai laztan eta euskaltzale gartsu A. Lafamendi ta Mendiburu'ri. Oek dira ezagunenak; baña ez bakañak. Begira garai'ayetan Bilbo ta Donosti'ko Jesulagunak egin zutena.



Uri oetan urte ayetan betiko leloa entzuten zan: euskaldunak bazekitela erderaz; erderazko itzaldiak ere *entenditzen* zitutela ta ez zegola euskeraz egin bearik. Itzaldiak euskeraz antolatu ta egiteko nekerik artu nai ez zutenak ote ziran orela mintzatzen ziranak? – Ayek izango ziran noski.

Oen aitzaki ta esamesak alde batera utzi ta erabaki zuten Bilbo'n A. Jesulagunak euskeraz itzaldi batzu egitea. Asi ziran egiten eta... eliza bete beterik iñoiz ez bezela... urte askotako aitortzak befitzea, biotzak Jesulagunenganatzea... (1) begira zer etofí zan euskerazko itzaldietatik.

Berebat Donostian A. Inaki'ren semeak egin zituten euskerazko itzaldietan. Emen A. Solarte Lekeitia'ra zan euskerari auferabide aundiak eman zizkiona. A. Jesulagunen elizan asi ziran Garizumako itzaldiak,

---

(1) Demás de esto, se dió principio a los sermones en vascuence, lengua propia de esta tierra, en la cual no se solía; con lo cual han acariciado mucho a los de ella, y particularmente a la gente común, que goza en su lengua del pasto espiritual de sus almas y segúidose gran fruto: porque la experiencia ha demostrado que han salido muchos de ignorancias y se han movido a devoción mucha gente después que se les predica en su propia lengua y ha habido muchas confesiones generales de importancia y de muchos años. Con lo cual ha sido Dios servido de trocar la indevoción que al principio mostraron los de esta villa en gran devoción a la Compañía; y es ésta una de las villas que más nos quieren y aman y estiman nuestros ministerios y modo de proceder.

(Valdivia. Historia de los Colegios de la Provincia de Castilla Colegio de Bilbao).



baña eliz onek ezin artu ainbeste entzule ta Sta. Mari'ko elizan gañerakoak egin bear izan zituten (1).

\* \* \*

Ona emen asieran agindu deguna betetzeko zertxobait esanik. Ikusiko zenuten agian Aita Inazio Deuna etxekoa ta etxekoia, askok uste baño etxekoiagoa ta gureagoa degula. Eta bere semeak? Ikasi zuten gure auretik A. Inazioren seme izan diranak beren Aitagandik biotz bakoitzari ondoen artuko duan eran eman bear zayola Jaungoikoaren itzaren azia. Biotz erdel-dunari erderaz eman bear zayon bezela biotz euskeldunari euskeraz eman bear zayola.

Oraingo Jesulagunak? Badakigu oraingo Jesulagunak gure Aita Inaki Deunaren biotza mundua baño zabalagoa zala. Guk ere onelakoxe biotza nai genuke.

Baña bazeukan gure Aitak biotz zabal artan txoko berexi berexi bat bere lagunik urkoenentzat, bere erkideentzat, alegia euskaldunentzat. Guk ere gure biotzetan onelako txoko berexi berexi bat gure Aitaren eta gure erkideentzat badaukagula uste degu. Agindu bada nai dezutena A. Inazio Deunaren seme on eta zintzo izan nai degunoi.

*Eskeñak! eta gaizki esanak barkatu.*

---

(1) En cuanto se estableció un poco la misión (1621'ko urtian) predicaba en vascuence el P. Solarte los domingos por la tarde con sumo provecho y gusto de todos... Apenas vino la paz (1628) comenzóse a predicar la Quaresma en vascuence los domingos en la tarde en nuestra iglesia, y por no haber tanta gente en ella, pidieron se continuase en Santa María y así se hizo con gran fruto. (Historia del Colegio de San Sebastián).







GEIGARÍA





## *Loyola'tar A. Iñazio Deunak Azpeitiarai egindako eskutitza*

Kristo gure Jaunaren maitasuna ta eskeñik ugarie-  
nak gure alde ta lagun beti izan bitez.

Jaungoiko gure Jaunak ederki daki zenbat eta ze  
nolako asmo eder eta onginei irazekiak dauzkadan  
(Berak eman da), egiñal guziak zuen alde egiteko.  
Goi atsegin gozoak opa dizkizutet jaiio nintzan eriko  
gizaseme ta emakume guziori, eta, Jaunari eskeñak,  
eritar nazuten guziok zuen gogo edo aoimen onerako  
nere laguntza zuengan izango dezute. Ez nuan nik  
iñola ere irabazi eta ezingo diot bear bezela Jaunari  
ordaindu zuen artean nere jaiotza izanaz agertu zidan  
onginaia.

Jaun orek berberak (ez beste iñork) nere biotzean  
sutu duan zuenganako zaletasun eta ongi-nayak Pá-  
ris'tik Azpeiti'ra eramán nindun orain bost urte dira-  
la. Makal, osasun bila juan nintzan, baña ofara era-  
man ninduanak (¡ainbesterañokoa da izan ere Bere  
guganako erukia!) lan zerbait zuen artean egiteko in-  
dañik asko eman zizkidan, zerok ikusi zenduten beze-  
la. Egin nuan baño lan geyago orduan ez egiñak, ez



dauka beti nerekin daramazkidan utsegiteak beste aitzakirik.

Gurari bizi ayek nere biotzetik oraindio aldendu gabe dirautelako bururatu zait, urutitik eta beste nolabait egitea, or bertara jua da egiterik ez daukadan: ekartzea noski, zuen biotzetara Jaunak bere lagun kutunai eman oi dien pake ta lasaitasuna.

Badira, alegiya, gizartean ere alkarékin gentza edo pakeak egin ditutela dioten agintari aundi ta txiki batzu; baña gizonak eman oi duten pakea azalekoa da ta biotz bañenak ez ditu atsegiñez beterik uzten. Pakea alkarékin egin dutela diote, baña bata-besteaganako gofoto, ezin ikusi eta naikunde oker-biufiak besterik ez dauzkate noski beren biotzetan. Jaunaren pakeak ordea (gizonena bezelakoa ez da ta), bañen bañeneraño sarturik gure gogoak atsegin ez tutsuz betetzen ditu. Berekin dakarzki gañera zerura jua, eta beti beti iraungo duan zoriona irabazteko bear ditugun esker eta laguntasun ugariak. Goi-atsegin au daukatenak beren Egile eta Jauna maite dutelako urko laguna ere maite dute. Lagun urkoa maite izanaz beñiz Jaunaren legeko aginduak betetzen ditute, Paulo Doneak dionez: «Qui diligit proximum, legem implevit» (Rom., 13,8), «Besteak maite dituanak, legea bete du». Au da: baldiñ iñork bere Egile ta Jauna maite badu, eta maitasun onek geide edo urko laguna ere maitatu eragiten badio, legeko aginte guztiak bete ditu.

Zuenganako nere onginau au orain beñiro agertu, eta zuen gogo edo animak alaitu ta bizkortu nai dituala diot. Begira nola: Jaungoiko gure Jaunak nere



aspaldiko adiskide ta lagun laztan Domingo Deunaren seme baten bidez argiratu du Sakramentu guztiz santua goratu, aintzatu ta ondo artzeko oitura beñi egoki bat.

«Bachiller» jaunak (1) berekin daraman Agirian (Buldan) ikusi ta ikasiko dezute oitura beñi au. Bertan oro bat ikusiko dituzute Jesusi Aldarean, erakusten dana egiñaz, agur egiten diotenak irabazten dituten barkamen ugariak. Asko ta aundiak dira barkamen auk; nik orain esan dezakedan baño aundi ta ugarigoak. Jaunari guziok zor diogun maitasun eta begirune onaz oroiturik jañen! aintzat artu zazute oitura on eder au. Zabaldu dedila eñi guzian, berarizko itzaldi egokiak, deun-ibiltzak (prozezioak) eta beste Elizkizunen batzu egiñaz.

Buruan daukat, iñoiz ere aztu gabe, zuen artean egin nuan egonaldia. Baita eñitar guztien asmo eder eta erabakiak ere buruan dauzkat; jeñen sendo ta egiazkoak ziran! Guziok alegiña eginda gero, Azpeitiñ sustraiturik gelditu ziran garai artan oitura on auk:

1) Joale (kanpai) otsak egitea egunero, oker edo pekatu lañian daudenak Jaunaren adiskidetasunera biurtu ditezen.

2) Eskaleak zerekin bizia izan dezatela, atez ateske ibili gabe.

3) Eragotzirik gelditu ziran karta jokua ta joku-kartak saldu ta erostea ere.

---

(1) A. Antonio Araoz, Bergarataña. Emen Deun Iñaki Aitak aitatzen duan anaidia «Minerva» deritzaiona da. (Euskerazlearen oaña.)



4) Emakume batzu, bear bezela ezkondata baleude bezela, buruko estalkiak ibiltzeko oitura itxusia kendu zan. Jaunari lotsagabekeri aundia egiten zitzaion neska ayek ala ibili ta.

Zuen artean igaro nitun egunetan neonek ikusi nuan nola asi zinatzen, Jaunari eskeñak eta Bere laguntzarekin, oitura on aukeratu ta betetzen. Añezkero ez det zuen beñirik, eta ez dakit Jaunari atsegin aundia ematen dien bide on ayei jaraitzen diezuten ala ez. Dana dala, bideko nekeak inor auldu badu, indartu dedin; eta zuzen bazoazte beñiz, geroz ta geiago auñerazitzeko asmoz, Jaunari zor diogun maitasun eta begirune aundiak eskatzen diguna nik ere biotzez eskatzen dizutet: Jaungoikoaren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jauna Sakramentu guztiz donean al dezuten geien goraldtu, aintzatu, maitatu dezazutela esan detan oitura beñi egokiarekin. Antxe daukagu Jesukristo gure Jaungoiko gizon egiña: zeruan dagon bezelaxe aunditasun, indar almen eta zindotasunean bazter eta azkenik gabe.

Anaidi bat egin zazute bada; eta anaidian sartzen diranak ilero beren pekatuak aitortu ta Jaun artu dezatela; baña gogo onez, ez gogoñez; jakinik ez duala inork pekatu egingo aginte aukeratu betetzeke. Sinistu neri, egi egiz esaten dizutet eta: irabazi aundiak egingo ditute zuen gogo edo animak bide oni jaraitzen badiozute.

Egunero Jaunartzen zuten lenengo gizaldietako kristauak. Zortzitik zortzira ayen ondorengoak. Gerrogo, kristautasunean epeltzen asi zaralako (inork nai bazuan, edo bere biotzean Jaunaganako zaletasun



aundia bazeukan, safi samar, iru egunetik iru egunera, zortzitik zortzira, edo ilean bein zeru-janari onekin indartzen zuan gogoak; baña) kristaurik geienak urtean iru bider, jai egunik aundienetan, Jaunartzeko oitura sartu zan. ¡Orain urtean bein bakañik! Aiñ otz eta gaixo daude Kristau-biotzak. Kristo Gure Jaunagandik izena besterik artu ez degula dirudi.

Etzaitezte zuek oraingo kristau otz auek bezelakoak izan. Jaunarenganako maitasunak eta gure anima edo gogoak irabaziko dituzten ondasunak bizkortu gaitzala guziok safi safi Jaunartzera juateko.

Al dezutenak ekin kristau on ayen jafaibideari (aуда, asi egunero Jauna artzen). Au ezin dezakezutenak, ilero beñepein aitortu ta Jaunartu. Begira zer dion Deun Agustiñ'ek beste Elizako Irakasleakiñ: «Egunero Jaunartzea ez det esango guztientzako dala, ez ta gaizki egiña dala ere; baña igandero Jaunartzea kristau guztiai naierazoko nieke».

Jaunaren ezin neurí-alako eruki ta onginaiak esker ugariak emango dizutela uste det gizaseme ta emakume guztioi lanbide on oni ekiteko. Ekin bada. Eta Berari zor diozuten mirabetza ordainduaz, gogoak irabazpide argi ta garbiz beteko dituzute.

Ezer ez geiago. Oroitu nizaz beti zuen otoitz guzietan, batez ere Jaunari bere Sakramentu guztiz deunean egingo dizkiozutenetan. Biotz biotzez eskatzen dizutet laguntza au. Nere otoiak ezer gutxi dezateke nereak diralako, baña guziak beti zuen alde izango dira.

IGNATIUS

Efoma'tik 1540'gaíren urtean.







